

En la Casa Consistorial del M. I. Ayuntamiento de Auritz/Burguete siendo las 18:00 horas del día 27 de diciembre de 2023, se reunió el Ayuntamiento al objeto de celebrar sesión extraordinaria con la asistencia de los Sres./Sras. Concejales/as D. Eder Martínez de Miguel, D. José Irigaray Gil, D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna y D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco, bajo la presidencia del alcalde D. Unai Irigaray Osés, actuando como Secretaria de la Corporación Doña Marisol Ezcurra Irure.

### **1.-CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EN EL NOMBRAMIENTO DE TENIENTES DE ALCALDE.**

Informa el alcalde Sr. Irigaray Osés, de su resolución nº 137 de 22 de diciembre de 2023 referente a nombramiento de Tenientes de Alcalde cuyo contenido es el siguiente.

*RESUELVO:*

*En el ejercicio de mis facultades y de conformidad con el artículo 41 del ROF (Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre), nombrar primer Teniente de Alcalde a D. José Irigaray Gil y segundo Teniente de Alcalde a D. Eder Martínez de Miguel.*

### **2.- CREACIÓN DE GRUPOS DE TRABAJO Y DESIGNACIÓN DE SUS MIEMBROS.**

Toma la palabra el Alcalde Sr. Irigaray Osés, que manifiesta que dado que la corporación actual se compone de 5 concejales propone crear cinco grupos de trabajo llamados: Juventud, Festejos y Deporte; Tercera Edad y salud; Urbanismo y vivienda; Patrimonio, Cultura y Turismo; Montes, gestión comunal y transición energética; en los que en cada uno corresponde la responsabilidad al edil correspondiente, aunque la puesta en común de los temas será continuada.

Estando todos los corporativos conformes y tras un debate se acuerda por unanimidad aprobar la propuesta realizada por el alcalde Sr. Irigaray con el siguiente reparto de grupos

-Juventud, Festejos y Deporte: D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna.

-Urbanismo y vivienda: D. José Irigaray Gil.

-Tercera Edad y salud: D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco.

- Patrimonio, Cultura y Turismo: D. Eder Martínez de Miguel.

- Montes, gestión comunal y transición energética: D. Unai Irigaray Osés.

### **3.-NOMBRAMIENTO DE REPRESENTANTES MUNICIPALES**

El Ayuntamiento, a propuesta del alcalde Sr. Irigaray Osés, acuerda por unanimidad designar los siguientes representantes en los diversos organismos en los que forma parte.

**Consejo de Salud:** D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco.

**Mancomunidad Auñamendi:** D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco y D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna.

**Mancomunidad Bidausi:** D. José Irigaray Gil y D. Unai Irigaray Gil.

**Escuela de Música:** D<sup>a</sup> Ana Azanza Burusco, suplente D. Unai Irigaray Osés.

**Cederna:** D. Eder Martínez de Miguel, suplente D. José Irigaray Gil.

**Consejo Escolar:** D. Unai Irigaray Osés, suplente D<sup>a</sup>. Ana Azanza Burusco.

**Amavir Ibañeta:** D<sup>a</sup> Ana Azanza Burusco, suplente D. José Irigaray Gil.

**Mancomunidad Berragu:** D. Eder Martínez de Miguel, suplente D. José Irigaray Gil.

**Servicio de Euskera:** D. Unai Irigaray Osés, suplente D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna.

**Comisión gestión pastos Z.E.C.:** D. José Irigaray Gil, suplente D<sup>a</sup> Ana Azanza Burusco.

**Mesa del Pirineo:** D. Unai Irigaray Osés, suplente D. José Irigaray Gil.

**Parque Micológico:** D. Unai Irigaray Osés, suplente D<sup>a</sup>. Andrea Juandeaburre Serna.

#### **4-PERIODICIDAD Y HORARIO DE SESIONES.**

Se propone por el alcalde Sr. Irigaray Osés, que las sesiones, teniendo en cuenta que los martes es el día que viene la Secretaria a Burguete y con el fin de facilitar tanto a los concejales su participación como a los vecinos que puedan acudir a las mismas, se celebren los primeros martes de los meses pares a las 19 h.

Se acuerda por unanimidad celebrar las sesiones plenarios ordinarias con una periodicidad bimensual el primer martes de cada mes de los meses pares a las 19 horas de la tarde.

#### **5.-ACUERDO RETRIBUCIONES ALCALDÍA Y CONCEJALÍAS.**

Toma la palabra la Secretaria-Interventora que explica que el dinero de las retribuciones que cobran los ediles viene casi en su totalidad de una partida que el Gobierno de Navarra reparte a los ayuntamientos. Que en la anterior legislatura el Alcalde cobraba una nómina de 260 € al mes y los concejales alrededor de 300 al trimestre.

El Alcalde Sr. Irigaray Osés, propone percibir las retribuciones de la misma forma que la anterior legislatura y si a futuro se ve que el reparto no es correcto se estudiará una nueva fórmula de reparto.

La Corporación acuerda por unanimidad continuar con la fórmula de reparto de retribuciones llevada a cabo en la anterior legislatura.

#### **6.-APROBACIÓN PRESIÓN FISCAL 2024.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que expone que se debe proceder a la aprobación de los tipos impositivos para el año 2024, proponiendo aprobar los mismos que el año pasado salvo el de la contribución territorial que como se acordó en sesión de 18 de diciembre de 2020 se aplica una subida de 0,02% del tipo de gravamen hasta alcanzar el 0,25%, tipo de gravamen mínimo exigido por la ley., y por tanto el tipo de gravamen de la contribución territorial pasa del 0,21 al 0,23.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la presión fiscal para 2024 en los siguientes términos:

1. Fijar el 0,23% el tipo de gravamen para la exacción de la contribución territorial (rústica y urbana).
  2. Fijar el 3 por ciento, sobre el presupuesto de ejecución material el tipo de gravamen del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (tarifa mínima 30,00 euros).
  3. Impuesto actividades económicas: en el presente año se exenciona de su pago a los sujetos pasivos con ingresos inferiores a 1.000.000,00 euros. Sujetos obligados: aplicar el 1,4
  4. Respecto al impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana, aplicar los porcentajes máximos establecidos en el artículo 175 de la Ley Foral 2/1995, fijando el tipo de gravamen en el 8,5.
  5. Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica: las tarifas establecidas por el Gobierno de Navarra.
  6. Fijar una tasa de 30,00 euros por lote de leña de hogar.
  7. Eliminar al resto de las exacciones tributarias municipales la aplicación del IPC.
- El presente acuerdo entrará en vigor el día uno de enero del año 2024.

## **7.-APROBACIÓN PROYECTO CONVOCATORIA LEADER.**

Toma la palabra el alcalde Sr. Irigaray Oses, que informa que la convocatoria del Plan de Desarrollo Rural (PDR) ya se ha publicado dando un plazo hasta el 19 de enero de 2024 para presentar proyectos al mismo. Que, las necesidades más urgentes son la reconversión del actual parque infantil que está en unas condiciones deplorables convirtiéndolo en un espacio multigeneracional y la cubierta del frontón Josta-Leku que presenta serias deficiencias y a raíz de la última dana se ha caído parte del lucernario de la bizkarra entrando agua. Dado que la convocatoria se publicó estando la anterior Corporación da la palabra al concejal Sr. Irigaray para que explique las gestiones realizadas al respecto.

Toma la palabra el concejal Sr. Irigaray Gil, que explica que se puso en contacto con la agente de desarrollo de Cederna en la zona y que al respecto le dijo que acciones en los frontones están excluidos de la convocatoria y que el parque es muy difícil que consiga la puntuación necesaria para recibir ayuda por lo que se puso en contacto con el concejal Sr. Martínez y le propuso presentar algo respecto al yacimiento de Zaldua.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez que expone una serie de ideas al respecto y que con ello confeccionan el proyecto.

La Corporación acuerda por unanimidad, aprobar la presentación a la convocatoria del proyecto de puesta en valor del yacimiento de Zaldúa.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 18:30 horas. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2023ko abenduaren 27ko 18:00etan, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratuak: Eder Martínez de Miguel, Jose Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Ana Azanza Burusco zinegotziak, bilkura buru alkatea, Una Irigaray Oses izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

### **1.- ALKATEORDEEN IZENDAPENAREN GAINEKO ALKATE EBAZPENA JAKITERA EMATEA**

Irigaray Oses alkateak alkateorde izendatzeari buruzko 2003ko abenduaren 22ko 137. ebazpenaren berri eman du. Honako hau dio:

*EBATZI DUT:*

*Nire ahalmenak erabiliz eta AFaren 41. artikuluari jarraituz (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua), Jose Irigaray Gil jauna lehen alkateorde eta Eder Martínez de Miguel jauna bigarren alkateorde izendatzea.*

### **2.- LAN TALDEAK ERATZEA ETA HAIEN KIDEAZ IZENDATZEA**

Irigaray Oses alkate jaunak hartu du hitza eta adierazi du, egungo Udalbatza 5 zinegotzik osatzen dutenez, bost lantalde hauek sortzea proposatzen duela: Gazteria, Festak eta Kirola; Hirugarren Adina eta Osasuna; Hirigintza eta Etxebizitza; Ondarea, Kultura eta Turismoa; Mendiak, herri-lurren kudeaketa eta energia-trantsizioa; horietako bakoitzean dagokion zinegotziari dagokio erantzukizuna, nahiz eta gaien berri elkarri etengabe emango dioten.

Udalkide guztiak ados egonik eta gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da Irigaray alkateak egindako proposamena onartzea eta honako banaketa egitea:

-Gazteria, Festak eta Kirola: Andrea Juandeaburre Serna.

-Hirigintza eta etxebizitza: Jose Irigaray Gil

-Hirugarren Adina eta Osasuna: Ana Azanza Burusco.

-Ondarea, Kultura eta Turismoa: Eder Martínez de Miguel

-Mendiak, herri-lurren kudeaketa eta energia-trantsizioa: Unai Irigaray Oses

### **3.- UDAL ORDEZKARIEN IZENDAPENA**

Udalak, Irigaray Oses alkateak proposaturik, aho batez erabaki da parte hartzen duen erakundeetan honako ordezkariak izendatzea:

**Osasun Kontseilua:** Ana Azanza Burusco.

**Auñamendi Mankomunitatea:** Ana Azanza Burusco eta Andrea Juandeaburre Serna.

**Bidausi Mankomunitatea:** Jose Irigaray Gil eta Unai Irigaray Gil

**Musika Eskola:** Ana Azanza Burusco, ordezkoa Unai Irigaray Oses

**Cederna:** Eder Martinez de Miguel, ordezkoa Jose Irigaray Gil

**Eskola Kontseilua:** Unai Irigaray Oses, ordezkoa Ana Azanza Burusco

**Amma Ibañeta:** Ana Azanza Burusco, ordezkoa Jose Irigaray Gil

**Berragu Mankomunitatea:** Eder Martinez de Miguel, ordezkoa Jose Irigaray Gil

**Euskara Zerbitzua:** Unai Irigaray Oses, ordezkoa Andrea Juandeaburre Serna

**B.B.E.-ko bazkalekuak kudeatzeko Batzordea:** Jose Irigaray Gil, ordezkoa Ana Azanza Burusco

**Pirinioko Mahaia:** Unai Irigaray Oses, ordezkoa Jose Irigaray Gil

**Parke Mikologikoa:** Unai Irigaray Oses, ordezkoa Andrea Juandeaburre Serna.

### **4.- BILKUREN MAIZTASUNA ETA ORDUTEGIA**

Irigaray Oses alkateak proposatu du bilerak hilabete bikoitietako lehen asteartean egitea 19:00etan, idazkaria Auritzera datorren egunean, eta zinegotziei zein herritarrei parte hartzen laguntzeko.

Aho batez erabaki da ohiko osoko bilkurak bi hilean behin egitea hilabete bikoitietako lehen asteartean, 19:00etan.

### **5.- ALKATETZAREN ETA ZINEGOTZIGOEN ORDAINSARIEN ERABAKIA**

Idazkari kontu-hartzaileak hitza hartu du, eta azaldu du zinegotziek kobratzen dituzten ordainsarien dirua ia osorik Nafarroako Gobernuak udalei banatzen dien kontu-sail batetik datorrela. Aurreko legegintzaldian alkateak 260 euroko nomina zeukala hilabetero eta zinegotziek hiruhileko bakoitzeko 300 euro inguru.

Irigaray Oses alkate jaunak ordainsariak aurreko legegintzaldian bezala jasotzea proposatu du, eta etorkizunean banaketa zuzena ez dela ikusten bada, banatzeko beste formula bat aztertzea.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurreko legegintzaldian ordainsariak banatzeko formularekin jarraitzea.

## **6.-. 2024KO KARGA-TASAK ONARTZEA**

Irigaray Oses alkate jaunak hitza hartu du eta esan du 2024rako zerga-tasak onartu behar direla, eta proposatu du iazko tasa berberak onartzea, lurralde-kontribuzioarena izan ezik; izan ere, 2020ko abenduaren 18ko bilkuran erabaki bezala, karga-tasaren % 0,02ko igoera aplikatzen da, legeak eskatzen duen gutxieneko karga-tasa % 0,25era iritsi arte, eta, beraz, lurralde kontribuzioaren karga-tasa 0,21etik 0,23ra pasatzen da.

Aho batez erabaki da 2024ko Zerga Tasak onartzea. Hona hemen:

1. Ehuneko 0,23ko karga-tasa jartzea hiri-lurraren gaineko kontribuzioa ordainarazteko (landa eta hiri kontribuzioa)
2. Ehuneko 3ko karga-tasa jartzea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga (EIOZ) ordainarazteko. (Gutxieneko tarifa 30,00 €).
3. Ekonomia-jardueren gaineko zerga: aurten, 1.000.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten subjektu pasiboek ez dute zerga hori ordaindu beharko. Behartutako subjektuak: 1,4 aplikatzea.
4. Hiri-lurren balio igoeraren gaineko zergari dagokionez, 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehieneko portzentajeak aplikatzea eta karga-tasa %8,5koa izatea.
5. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Gobernuak ezarritako tarifak.
6. Etxeko egur-lote bakoitzeko 30,00 euroko tasa jartzea.
7. Udaleko gainerako zerga-ordainarazpenei KPIa ez aplikatzea

Erabaki honek 2024ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

## **7.- LEADER DEIALDIRA PROIEKTUA AURKEZTEA ONARTZEA**

Irigaray Oses alkateak hitza hartu du eta jakinarazi du Landa Garapeneko Planaren deialdia argitaratu dela eta proiektuak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 19an bukatzen dela. Premia larrienak honako hauek direla: egungo haur-parkearen birmoldaketa, baldintza penagarrian baitago, belaunaldi anitzeko gunek bihurtuz, eta Josta-Leku pilotalekuaren estalkia, akats larriak dituen; azken Danaren ondorioz bizkarreko argizuloaren zati bat erori da eta ura sartzen da. Deialdia aurreko legegintzaldian argitaratu zenez, Irigaray zinegotziari hitza eman dio azalpenak eman ditzan.

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza, eta azaldu du Cedernako garapen agentearekin harremanetan jarri zela eta horri buruz esan ziola pilotalekuetako ekintzak deialditik kanpo daudela eta oso zaila dela parkeak laguntza jasotzeko behar den puntuazioa lortzea. Horregatik, Martínez zinegotzi jaunarekin harremanetan jarri zen eta Zalduako aztarnategiari buruzko zerbait aurkeztea proposatu zion.

Martinez zinegotziak hitza hartu du eta gaiari buruzko hainbat ideia azaldu du eta horiekin proiektua prestatuko dela dio.

Udalbatzak erabaki du aho batez Zalduako aztarnategia balioan jartzeko proiektua deialdira aurkeztea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 18:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.